

Inicio > Ocio y cultura > Cultura

## 'Hura ez da lekua', tauletatik liburura

IKUSKIZUNETIK ABIATUTAKO SORKUNTZA BERRIA DA OIER GUILLAN ETA ASIER SARASOLAREN LANA

M.E. - Martes, 27 de Noviembre de 2012 - Actualizado a las 05:28h

☆☆☆☆☆ ivota! | [icomenta!](#)

[\(?\)](#) [✉](#) [G+](#) [;\)](#) [Twitter](#) 0

[f](#) Recomendar 3



*Sarasola, Guillan, ortega eta Berabitarte, atzo Donostian.*

**DONOSTIA.** laz ikuskizun moduan sortu zena disko liburua bihurtu da aurten: *Hura ez da lekua*. Hasieratik izan zuten filosofia hauxe izan zen: "Hemen gaude, hau da liburua eta hau egin dugunok aukeratu dugun lekua, talde sormenarena ezerosoa, zaila eta ederra. Sormena bakarka ulertzen dugu, baina baita taldeka ere, elementu artistiko ezberdinen arteko elkarrizketa ematen denean eta ez elkargune edo elkar ilustratze hutsa", esan zuen Oier Guillan idazleak. Helburu finko bat dute, poesia, musika, pintura eta antzerkia oholtzan uztartzea. "Ez da ikuskizuna gorde duen lan hutsa, hartatik abitutakoa baizik, sorkuntza berria delako". Hiru urratsetan garatutako proiektua da, ikuskizuna lehenik, eta beranduago liburua eta diskoa.

"Lehenengo pertsonan idatzita dago eta bakarrizketa gisa egindako narrazio poetiko bat da", esan zuen Asier Sarasola idazleak.

Protagonistaren osaba hil egin da eta berarekin edukitako elkarrizketak gogoratzen ditu ausentzia horren minari aurre egiteko. Narratzailea zoriontsua den aurpegi bat marraztu nahian dabil; bera margolaria da eta koadernoan egiten dituen irudiak ikusgai daude liburuan.

"Hiru irudi mota daude, batetik antzezlaneko pertsonaia eta bestalde, irudi horretara iritsi arteko irudiak, narratzaileak une bakoitzean sentitzen duena adierazten dutena, bere burua marraztuz edo osaba marraztuz, eta egunerokotasunean inguruan topatzen dituen pertsonen erretratuak", esan zuten. Idoia Beratarbide irudigilearen irudiko, hiru modutan adierazten du bere barne mundua pertsonaiak: hitzez, irudiez eta musikaz.

Zoriontasunari buruzko gogoeta du oinarri lanak. "Zoriontsu garenean zer esaten duten gutaz eta zoriontasunari buruz dauzkagun ideiak, proiektu honi zirko intimoa deitu diogu. Norbera asko sentitzera eramaten duten une txikiez jabetzea eta eguneroko jardueren gizarte osora proiektatzen dena da zirko intimoa", esan zuen Sarasolak.

Abenduaren 9an egongo dira zuzenean Durangoko Azokan eta abenduaren 23an Oiartzunen.

Vista:

[Más texto](#)

[Más visual](#)

